



Usurbilgo Udala



Esp.zk.: ID.05/2016-0458

ALKATEAREN DEKRETUA

XABIER ARREGI IPARRAGIRRE Usurbilgo Udaleko ALKATEAK,

Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. Xedapen Gehigarriaren 1. puntuak xedatutakoaren arabera, honako hau

IKUSIRIK

Alkatearen 2016ko abenduaren 2ko 2016/1169 Dekretuaren bidez Brigadarako eta udaltzaingorako ibilgailuen hornidura lizitazioa martxan jarri zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean argitaratuz 2016ko abenduaren 14an.

Emandako epean honako eskaintza hauek aurkeztu ziren:

1. LOTEA:
 - ALDIKAR AUTOAK SLU
 - GAURSA ARABAUTO SL
 - BILBOTRUCK SL
2. LOTEA: ez da eskaintzarik aurkeztu.
3. LOTEA: eskaintza bakarra aurkeztu da, GAURSA ARABAUTO SL

2017ko urtarrilaren 17an Kontratazio Mahaia bildu zen. 1. eta 3. loteko A kartazalak ireki ondoren zuzenak zirela ikusi zen eta ondoren B kartazalak ireki ziren. 2. loteari dagokionez, Kontratazio Mahaiko proposamenean oinarrituta 2017ko urtarrilaren 23ko 2017/0068 Dekretuaren bidez 2. lotea hutsik uztea erabaki zen (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzaile Profilean 2017ko otsailaren 2an argitaratuz).

1. eta 3. loteetako B kartazaletako edukia aztertu eta teknikariek txostenak osatu zituzten eta Otsailaren 10an bildu zen Kontratazio Mahaian aurkeztu.

1. loteari dagokion B kartazaleko balorapen txostena:

Udaltzainburuak eta Kontratazio Teknikariak bakoitzak B kartazaletako bere balorapen txostena aurkeztu dute. Udaltzainburuak bere txostena aurkeztu ondoren, Kontratazio Teknikariak zehaztapen batzuk egin ditu, bere txostenean jasota geratu direnak.

Aldikar eta Gaurisa enpresen B kartazaleko informazioaren artean berme epeari dagokion eskaintza jaso dute. Eskaintza hori zehatza eta espresua izan da (ez eskuorri orokor batean jasoriko epea, espreski eskaintza honetarako eskuz idatziriko epea baizik), eta informazio hori C kartazalean joan beharko lukeen informazioa da (modu automatikoan baloratzeko atala baita, bere puntuaketa zehatza duena).



Usurbilgo Udala

Bilbotruck enpresaren kasuan, emisora haien eskaintzan sartuta ote zegoen zalantza sortu zen eta hori argitzeko eskatuta adierazi dute instalakuntza bai baina emisora ez dagoela eskaintzan jasota.

3. Iteari dagokion B kartazaleko balorapen txostena:

Zerbitzuetako buruak txostena aurkeztu du, aurkezturiko eskaintza bakarrak baldintzak betetzen dituela zehaztuz. Kontratazio Teknikariak eskaintza honen inguruko txostena ere osatu du.

Hori horrela, eskaintza bakar horren C kartazala ireki zen eta eskaintza honakoa izan da:

- Prezioa: 25.950'41 euro (BEZ 5.449'59 euro, guztira 31.400 euro).
- Hornidura epea zenbat egun naturaletan gutxitzen den: 10 egun natural gutxiago.
- Zenbat berme urte gehiago eskaintzen diren: 3 urte gehiago.

Guzti hori ikusita,

ERABAKI DUT

LEHENENGOA: 1. Itean ALDIKAR AUTOAK SLU eta GAURSA ARABAUTO SL enpresen eskaintzak lizitazioetik kanpo uztea C kartazaleko informazioa B kartazalean sartu izanagatik.

BIGARRENA: 1. Itean BILBOTRUCK SL enpresaren eskaintzak emisora bera barneratzen ez duenez plegu teknikoak ez dituela betetzen adieraztea eta hortaz, lizitazioetik kanpo uztea.

HIRUGARRENA: 1. Iteari dagokion lizitazioa desertu deklaraztea eta erabaki hau udal web orriko Kontratatzailearen Profilean eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitaraztea.

LAUGARRENA: 3. Iteko GAURSA ARABAUTO SL-ren eskaintza bakarra abantaila gehien eskaintzen duen proposamena dela erabakitzea eta hortaz, Administrazio Baldintza Zehatzen Orrietako 20. klausulan xedatzen den dokumentazioa aurkezteko eskatzea, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 egun balioduneko epean, hau da, Sektore Publikoko Legearen Testu Bategineko 146.1 artikulua zehazten dituen aurretiazko ukanbeharrak betetzen dituela ziurtatzen dituen agiriak (orijinalak edo kopia konpultsatuak) eta dagokion behin-betiko bermea ezarri izana:

1. Bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea, kontratuaren esleipen zenbatekoaren %5ekoa, hau da, 1.297'52 eurokoa.

a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak:

- Nortasun Agiri Nazionala, lizitatzailerak bere izenean jardunez gero.
- Beste pertsona edo entitate bat ordezkatzuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze eskritura.
- Lizitatzailerak pertsona juridiko bat denean, eraketaren edo aldaketaren eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko



Usurbilgo Udala

zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egon behar badu. Inskribatuta egon behar ez badu, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio egintza aurkeztu beharko da. Agiri horietan jardueraren arauak agertu beharko dute, beharrezkoa bada dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek lanbide edo merkataritza erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, dena delako estatuko legediak baldintza hori eskatzen badu.

– Hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa elkarte bat eratu eta lizitaziora jotzen badute, taldekide bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa ekarriko du, adjudikaziodun suertatuz gero. Era berean, proposamenaren adieraziko dute aldi baterako enpresa elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

b) Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.

c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekikoak betetzen dituela frogatzen duten agiriak.

d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa egiaztatzen du(t)en agiria edo agiriak:
- Urteko negozio bolumena kontratuak hartzen duen eremuan, gutxienez urteko 65.000 eurotakoa (BEZ-ik gabe).

e) Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren ziurtagiria. Agiri hauek aurkeztuz:
Azken 5 urteetan hornitutako ibilgailu kopurua, eta adieraziko dituzte haien zenbatekoa, egunak eta destino publikoa edo pribatua, eta horiek gehituko zaizkie horiei buruzko ziurtagiriak. **Azken 5 urteetan antzeko 4 ibilgailu hornitu** dituztenek ulertuko da kaudimena dutela. Lote ezberdin bakoitzean aurkeztu beharko da, bere kasuan.

f) Atzerriko enpresek, kontratuan zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako, mota guztietako auzitegi eta epaitegi espainiarren eskumenei men egingo dietela dioen aitortpena aurkeztu beharko dute, eta, behar izanez gero, lizitatzailari dagokion atzerriko eskumen foruari uko egingo dietela adieraziko dute.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri lizitatzailari, Zerbitzuen sailari eta Kontuhartzaileari ematea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsua aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoaren



Usurbilgo Udala

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Alkatezaren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

- Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu orde, edo berraztertzeko errekurtsoren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena Alkateak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua. Usurbilen,

ALKATEA
Xabier Arregi Iparragirre

2017 MAR. 02

Nire aurrean
IDAZKARIAK
Garazi Etxeberria San Miguel

